

**SHKE**  
**egungoa**

S I N D I K A I H E Z I K E T A

**2002ko egoera  
ekonomikoaren  
azterketa  
1. sei hilekoa**

**ILAB**


**Hezkuntza**

**ZA  
BAI  
TZEN**





Zbkia

SHK00011

DOKUMENTAZIO  
ZENTROA



# **2002ko egoera ekonomikoaren azterketa 1. seihilekoa**



Erredakzioa: **Joselu CERECEDA**  
**Rafa IZQUIERDO**

Argitaratzailea: **Ipar Hegoa Fundazioa**



EUSKO JAURLARITZA  
JUSTIZIA, EKONOMIA, LAN  
ETA GIZARTE SEGURANTZA SAIA



GOBIERNO VASCO  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
ECONOMIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

2002ko iraila



## 2002ko egoera ekonomikoaren azterketa 1. seihilekoa

1.- Neoliberalismoa, errealitate gordina eta gezur galanta .....	5
2.- Kontzertu ekonomikoa eta Nafarroako komenioa: burujabetzarik ezaren kostua .....	7
3.- Lan merkatuaren bilakaera 2002ko lehendabiziko seihilekoan .....	9
- Geldialdi ekonomikoa eta enplegu sorketarik eza .....	9
- Langabeziaren eta aldikotasunaren iraunkortasuna .....	10
- Iparraldean ere, geldialdi ekonomikoa agertu da .....	11
4.- Kontratazioa 2002ko lehendabiziko seihilekoan .....	13
5.- Eranskinak .....	17



Борш

Борш  
Борш  
Борш

Борш  
Борш  
Борш


Борш  
Борш



# 1. Neoliberalismoa, errealitate gordina eta gezur galanta

Aspalditik "pentsamendu bakarra" da nagusi gure artean, batez ere komunikabideetan, eskuindarrek, kapitalistek, enpresariak eta abarrek gogoz, biziki, defendatuta. Pentsamendu horrek izen esanguratsua dauka: Neoliberalismoa. Ideologia honen arabera, ondasun eta zerbitzu guztien merkatuek inolako oztopo, langa, traba barik, funtzionatu beharko lukete. Munduko ekonomiak erabat "aske" izan beharko luke. Gauzak horrela, gizar-teak behar dituen ondasun eta zerbitzuak ekoiztuko litzuzke, eta erosleek dena eskatuko eta erosiko lukete. Merkatuek, berez "oreka" lortuko lukete, gizar-tearen beharrak asetuko lirarteke eta enpresariak gura eta behar dutena salduko lukete. Merkatuari esker, dena aukerako, hobezin izango litzateke. Teoria hau Adam Smith-ek idatzi zuen, historikoki merkantilismo ondoren indarrean ipini zen garai historikoa azaltzeko. Bere teoria laburbil-tzen zuen esaera hauxe zen: "laissez faire, laissez passer, le monde va de lui même" edo, "utzi iezaiozue ekonomiari bere kabuz libreki funtzionatzen, Ekonomia askeak berez, beti, aurkitzen du oreka". Neoliberalentzat, horretan datza garapena, progresismoa baita demokrazia ere -horrela diote lotsa barik-.

Merkantilismoaren funtsa bestelakoa zen, garai atzeratuago bati zegokion, non protekzionismoa zen nagusi. Teoria honen arabera, merkatuek itxiak



izan behar zuten, erreserbak handiagotzeko, esportazioak bultzatu eta inportazioak murriztuko zituzten babesneurriak ezartzearen aldekoa zen. Merkantilismoak ekonomia lokaletik ekonomia nazionalera pasatzea suposatzen zuen, feudalismotik merkataritzara. Neoliberalismoak, aldiz, ekonomia nazionaletik nazioarteko ekonomiara, munduko ekonomiara joatea suposatzen zuen.

Adam Smith gizajoak borondate onez idatzi zuen bere teoria, etorkizunean, gizakien, lagileen eta herri txiroen hurrupaketa, kupidabako lapurketa, kapital eta herri aberatsen mesederako aldekoa izango zen gaur egun modan (?) dagoen neoliberalismoaren funtsa izango zela.

## 2002ko egoera ekonomikoaren azterketa - 1. seihilekoa

Neoliberalismoarentzat, "Merkatua" da Jaungoikoa, ukiezina. Defendatzeko, merkaturia oztopatzen duten traba guztiak desagertarazi behar dira. Prezeski, herri eta nazio pobreak –eta gosea, miseria, ihesa e.a.- existitzen badira hau guzti hau ez egiteagatik da (zelako aurpegia eduki behar hori esateko! Eta sarritan irakurri behar, batez ere ekonomia egunkarietan!). "Merkatua"-k agintzen duen jabea da. "Merkatu" aske baten aurkakoak, atzerakoiak dira eta alde edo moldez terrorismoa defendatzen dute. Euren aurka dena da zilegi –inplizitoki, hori dio Bushek.

Kapitalismoa, munduko herririk aberatsenak, nahiz eta teorikoki euren buroak "neoliberalizat" hartu eta definitu, errealitatean, praktikan, merkantilistak dira. James Petrasek dioenez, "Imperialismo Neoliberal" kontzeptuak jadanik ez du balio. Estatu Garatu munduan azken hamarkadetan, ekonomia egon da joaten neoliberalismotik neo-merkantilismora eta transizioa jadanik bukatu da. Gaur egun, estatutik inperialistena den AEBek, ekonomi politika erabat protekzionista daramate, eten barik esportazio subsidioak ematen itsasoz bestaldeko merkatuak menperatzeko, aduanako barrerak, langa berriak inposatzen, euren merkatuak babesteko (hauek –nekazaritza, industria, e.a.- gero eta elkarlehia, konpetitibitate gutxiago daukate). Adibidez, AEBek Merkatu Aske Akordio Latinoamerikarra defendatzen dute. Akordio honen helburua hauxe da: AEBetako inbertsiogileak pribilegiatzea, Europako eta Japoniako lehiakideen kalterako.

Gaur egun, Neoliberalismoaz berba egitea, hala ekonomikoki zein politikoki, lekuz kanpo dago. Berrero diogu, neo-merkantilismoa da nagusi eta estatu inperialista boteretsuek eskatu egiten dute. Bestaldek, "Merkatuaren logikaz" berba egitea, gaur, ideologikoki, ez da zuzena, edo aipaturiko logika hau, Estatuak eskeintzen dituen posibilitateen arabera da. Ez dago "Merkatuaren legea edo logika", baizik eta inperialismoak bere arauak inposatzen ditu. Gaur egun "elkarlehia askeko" merkatuz berba egitea utopia da, nazio artean, bederen. Krisia dagoenean, edo zor publikoa ez kobratzeko arriskua dagoenean, estatuak edo euren menpekoa den Nazioarteko Moneta Fondoak hartzen dute parte. Areago, neo-merkantilismoak alde eta zonalde guztietan bidegabekeriak, istiluak, haserreak eragiten dituenez, estatu inperialistek indarra, bortxakeria, biolentzia, gerra, erabiltzen dute euren nagusitasunari eusteko. Neo-"liberalismoa" ez da existitzen, baizik eta izugarriko tirania sozio-ekonomiko-politikoa aurrera eramateko estatu inperialistek benetako terrorismoa praktikatzan dute, "askatasuna" "demokrazia" "defendatzeko". Hirugarren munduko herriei neoliberalismo ideologiaren izenean, gosea, miseria sortarazten zaie. Neo-merkantilismoak, inperialismoak, egoera honetan publikoki ados ez dauden herriei, "terroristak" deitzen die eta haien aurka erabiltzen duen bortxakeria da, hain zuzen, benetako terrorismoa. Horrela izan da, bada, eta izango da beti, kapitalismoa.

## 2. Kontzertu ekonomikoa

### eta Nafarroako komenioa: burujabetzarik ezaren kostua

Urte honetako lehendabiziko seihilekoan, ekonomi gertaerarik esanguratsuenetariko bat, Eusko Jaurlaritza eta PPren Gobernuaren arteko sinaturiko Ituna-Kontzeru Ekonomiko berria sendotzeko- izan da. Alde bakoitzeko ordezkari- tzekek sinatzen zuten bitartean, UPNko Ekonomia eta Ogasun Kontseilaria den Francisco Iribarrenek, Nafarroako Eko- nomi Komenioa berrizatzeko asmoa agerian utzi zuen, Madrilekin akordio azkar batera ailegatzeko, "leialtasun eta elkartasun kriterioak erabiliz".

Autogobernuaren oinarritzko tresna ba- lira bezala, autonomista diren Gober- nuek Kontzertua eta Komenioa defen- datzea ez da gauza berria, zerga erreji- men propioa ematen digutela esatera ailegatzeko dira. Hauxe bai dela gezur galanta!

Halako hitzarmenak adosteko bide ho- netan, ia zerga guztien gestio hutsa uz- ten da (Zerga Hitzartuak) eta batzuei bu- ruz, halako gaitasun arautzailea; hala eta guztiz, zerga sistema propioa edukitze- ko muga gaindiezinak daude, batez ere, Zerga Lege Orokorrak inposaturiko berdintasun kriteriogatik eta Estatuan dagoen zerga- presio antzeko bat man- tentzeko obligazioagatik.

Madrilek, zerga errejimen autonomiko- ek, Estatuko zerga eremuaz nolabaite- ko "artikulazio egokia" manten dezate- la eskatzen du. Aipaturiko homogenei-



tasun hori, "ondorio diskriminatzaile" deiturikoak gerta ez daitezten egiten da, zeren beren ustez, enpresen arteko lehia gutxitzen, ekonomia-baliabideen asignazio distorsionatzen eta merkatu batasuna (espainarra, noski) urratzen baitute.

Begiruneak edo koldarkeriak eraginda, autonomia feudo bi hauean, ekonomia konzertazio sistema da nagusi, zeinak gure beharrei egokituta dagoen zerga- eredu propio eta desberdina burujabe- tasunez hautatzea oztopatzen baitigu. Beraz, Espainiar Estatuan diseinatzen den zerga politikari 180 graduko bira emateko ahalmena bahitzen digun konzertazioaren aurrean gaude.

Espainiar zerga egitura duen izaera at- zeragarria definitzen duten oinarritzko zioak hauexek biak dira: (1) Zerga hi-

tzartuen diru sarreraren erdia, zeharkako zergetatik dator, eta zerga hauek ez du- te inolako aurrerakortasun aztamik. Ho- rregatik errentarik bajuenek zerga-es- fortzu handiagoa pairatzen dute. (2) Ka- pital errentei eta enpresa etekinei emandako faborezko trataerak zuzene- ko zergapetzearen gehiena soldatape- koen errenten lepotik egotea eragiten du.

Kontzertu eta Komenio Ekonomikoetan oinarrituta dauden Espainiako Errei- nuarekiko ekonomia-finantzako harre- manek, gure menpekotasun egoera sa- kontzen duten beste ondorio batzuk dauzkate.

Espainiako Estatuko Aurrekontu Oroko- rren erdia baino gehiago, Gobernu Au- tonomikoek bereganatu ez dituzten es- kumenei dagozkie. Logikoa denez, es-

## 2002ko egoera ekonomikoaren azterketa - 1. seihilekoa

kumen hauetaz ez daukagu erabakitze-ko inolako ahalmenik, baina finantzatze-  
ra behartuta gaude. Eta, Kontzertuan eta  
Komenioan agertzen da, hain zuzen ere,  
bereganatuta ez diren Estatuko finan-  
tza-zamak finantzatzeko konpromisoa,  
beren zenbateko osoari inputazio indi-  
ze batzuk aplikatuz, Araba, Bizkaia eta  
Gipuzkoan %6,24 eta Nafarroa Garaian  
%1,60.

Beraz, Hegoaldeko lau herrialdeek Es-  
tatuko Aurrekontu Orokorretako bere-  
ganatuta ez dauden eskumenei dagoz-  
kien gastuen %7,84 ordaindu behar du-  
te. Hau guztia, Kupo moduan (edo Apor-  
tazioa Nafarroan) adierazten den diru  
kopurua baino askoz gehiago da. Ze-  
hatzago esanda, aurren, aipaturiko  
%7,84k, ia 5.900 milioi euro suposatuko  
du (ia ia bilioi bat pezeta), Gobernu Au-  
tonomikoen kudeatzen duten aurrekon-  
tu orokorraren erdia gutxi gorabehera.

Estatuko defizit edo superabit publikoa  
eta Estatuak berak biltzen dituen diru  
sarrerak kontuan hartuta, geroago egi-  
ten diren doikuntzek (aduanak, loteriak,  
jasotako subentzioak,...) herri hizkeran  
deituriko "kupoa" sortzen dute.

Diru-harrapaketak dituen helburuen ar-  
tean, batzuk lotsagarriagoak, iraingar-  
riagoak dira, beste batzuk baino: Erret  
Etxea mantentzea, espainiar armada  
eta bere azken abentura militarrek  
(gaur Afganistan, bihar Irak) finantza-  
tzea eta Estatu-batasuna indarrez ber-  
matzeko erabiltzen den makineria juri-  
diko-polizialaren mantenimendua.

Azkenik, joan den urtarrilean, Erkide-  
go Autonomikoen aurrekontu-defizit  
izateko daukaten gaitasuna aldatzen  
eta murrizten duen Aurrekontu-Egon-  
kortasun Lege Orokorra indarrean ipi-  
ni zen. Lege honek, aurrekontu-egon-  
kortasun oreka edo superabit termino-  
ez mantentzea behartzen du, baina fi-  
nantza-eragiketen bidez soilik.

"Salbuespeneko egoeretan" defizit  
izatea ukatzen ez duen arren, egoera  
hauek aski justifikatuta egon behar du-  
te eta saneamendu egitasmo bat aur-  
keztu beharko da. Zerga eta Aurrekon-  
tu Politika Kontseiluak, (Erkidego Auto-  
nomikoen eta Estatuaren arteko koor-  
dinazioa egiteko organoa), Erkidego  
bakoi-tzeko egonkortasun helburua  
agintzeaz gain, defizita zuzentzeko  
egitasmoen egokitasunaz bere iritzia  
emango du.

Neurri honetaz, legebiltzar autonomi-  
koek beren aurrekontuen helburu es-  
trategikoak definitzeko daukaten gai-  
tasun mugatuta bereganatzeaz gain,  
Europako Batasuneko Kontseiluak  
onartu zuen baino aurrekontu kontrol  
gogorragoa ipintzen da indarrean. Pa-  
radoxikoki, Europako Batasuneko Es-  
tatu batzuk (Portugal, Italia, Alemania  
eta Estatu frantsesa) BPGko (Barne Pro-  
dutu Gordina) %3 baino gehiagoko  
defizita ez izatearen konpromisoa mal-  
gutu dute, beren ekonomiak indartze-  
ko asmoz.

# 3. Lan merkatuaren bilakaera


## 2002ko lehendabiziko sei hilekoan

### Geldialdi ekonomikoa eta enplegu sorketarik eza

Errealitatea eta gurariak ezin dira nahasi, era berean, mila bider errepikatuturiko gezurra ez da egia bihurtzen. Sarrera honek, orain dela gutxi arte ekonomiaren "susperraldi azkarrez" eginiko iragarpenek gure ustetan merzei duten iritzia laburbiltzen du. Azkenean, nazioarteko erakunde mordo batek eta munduko ekonomia garrantzitsuen eran-tzuleek plazaturiko aurreikuspenak hutsaren hurrengoan geratu dira.

Bloke ekonomiko handiek eta, orokorrean, munduko ekonomiak daukan bilakaera ikusi eta gero, NMFk (Nazioarteko Moneta Fondoa-"FMI"), bere aurreikuspenak beharantz berraztertu ditu. Ustezko AEBetako susperraldia- ren hondamena (BPG -Barne Produktu Gordina- %1,1 baino ez zen hazi urteko bigarren hiruhilekoan, lehendabizikoan %8,6koa izanda), eta Euro eremuan suertatu den hazkunde ahula (%0,3 bigarren hiruhilekoan, aurreikusitakoaren erdia) izan dira "susperraldiak denbora luzeagoa beharko du" ondorioztatzen determinatzaileak.

Espainiako gobernuak ere, bigarren aldiz bere aurreikuspenak murriztera behartuta ikusiko du bere burua: bi-



tartean, Ekonomia frantziar arduradunak, aurrekontuen oreka mantentzeko konpromisoa (Egonkortasun Ituna) malgu-tzea lortu du, frantziar ekonomia akuilatzen.

Euskal Ekonomiak, irekita eta nazioarteko testuinguruak biziki eraginda, ezingo du "irla" bat balitz bezala jardun, europar eta munduko ezegonkortasunik at. Egitez, eta EPAren (Biztanleria Aktiboaren Inkestaren) datuak kontuan hartzen baditugu zera esan daiteke: dezelerazio ekonomikoak Hego Euskal Herrian enplegua sortzea larriki oztopatzen du.

INEk (Enplegu Institutu Nazionala) eginiko inkestaren arabera, urte honetan,

## 2002ko egoera ekonomikoaren azterketa - 1. seihilekoa



orain arte, enplegu sorketa ezereza-  
ren hurrengo izan da eta aldikosatun  
tasa apur bat igo da, lehendabiziko hi-  
ruhileko %28,6tik, bigarrenen %29ra  
pasatuz.

Zalantza sortzen duten faktore berriek  
eragiten diete kanpo sektoreko kon-  
trakzioari, inbertsioaren atzeratzeari  
eta familiako kontsumoari: AEBak  
prestatzen dabilzan Iraken aurkako  
erasoa, eremua eta petrolio-errekurt-  
soak kontrolatzeko. Gauzak horrela,  
perspektiba ekonomikoak iluntzena-  
go dira.

### Langabeziaren eta aldikota- sunaren iraunkortasuna

Urteko bigarren seihilekoan, Araban,  
Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Ga-  
raian, oro har, 1.117.500 landun zeu-  
den, urte hasierako antzeko kopurua.  
Enplegu bilakaerari dagokionez, se-  
xua kontuan hartzen badugu, nabar-  
men-tzekoa da, lehendabiziko seihile-  
ko honetan, emakumezkoen enple-  
guak izan zuen igoera txikia (%0,7 bai-  
no txikiagoa). Igoera hau (2.900 ema-  
kume landun gehiago), gutxi gorabe-  
hera, gizonezkoen arteko 3.100 lan-  
postuko galeraz konpensatu zen. Hala  
eta guztiz, emakume landunek biztan-  
leria landun osoaren %38,6 baino ez  
dira oraindik.

Enplegu egiturari dagokionez, biztan-  
leria landunaren %80 soldatapekoa  
da, eta hauen artean, aldikotasun tasa  
%29 da, hots, Europako Batasuneko  
batez bestekoa baino 16 puntu gehia-  
gokoa.

Gogora dezagun, 1997an, Hegoalde-  
an, aldikotasun tasa %31,40 zela. Urte  
horretan bertan, CCOO eta UGT sindi-  
katuek, espainiar ugazaberiarekin  
akordio bat sinatu zuten "enplegu  
egonkortasunerako", zeina PPko go-  
bernuak onartu baitzuen. Sindikatu  
hauek, deskausalatasuna eta kaleratze-  
aren merketzea ontzat eman zuten,  
sustapeneko lan kontratu mugagabea  
sar-tzearen truke. Kontratu honek, le-  
gez kontrako kaleratze kasuko indem-  
nizazioa mugagabe arruntakoak bai-  
no askoz txikiagoa dauka, enpresa-  
rientzako gainsari handiez gain. Ha-  
rrezkero, enpresariak, 8.788 milioi eu-  
ro<sup>1</sup> aurreztu dituzte (ia bilioi eta erdi  
pezeta) Gizarte Segurantzari kotiza-  
tzeko orduan. Hauxe da Paktu lotsaga-  
rri honen balantze mingotsa.

Aznarren gobernuak Paktu hau ondo  
baino hobeto barneratu zuen eta 2001  
urtean, lau urte lehenago hasitako lan-  
erreforma sakondu zuen, lan-malguta-  
suna handitzeko eta enpresari kuoten  
hobaria luzatzeko asmotan. Aurtengo  
maiatzean, klase langilearen eskubi-  
deei beste eraso bat eman zien PP al-  
derdiak, desenplegu laguntzaren mu-  
rrizketa eta tramitaziozko soldaten de-  
sagerpena "dekretatuz", beste behin,  
kaleratzearen kostua merketzeko.

Behin-behinekotasuna eta prekarietate-  
a murrizteko neurri hauen porrotak,  
lan bereizkeria gehien jasaten duten  
kolektiboetan izan du bere islarik han-  
diena. Aldikotasun tasa, bigarren hi-  
ruhilekoan, soldatapeko gazterien  
artean %67,4 zen, emakumeen artean  
%36,4 eta gizonen artean, %24,1.

<sup>1</sup> Espainiar Estatu osoan.


Langabeziari dagokionez, Hegoaldean, bigarren hiruhilekoan, 102.400 langabetu zeuden eta langabezi tasa, %8,4 zen (iazko epe berberarena baino hamarren bat gutxiago), Europako Batasuneko batez besteko langabezi tasa, maiatzean, %7,6 izan zen bitartean.

Baina langabeziaren larritasuna, oso desberdina da, sexu eta adinaren arabera. Zehazki esanda: langabezi tasa gizonezkoen artean %5,2 da, emakumezkoen artekoa %13,1 eta gazteriarrena %20,4 den bitartean.

Langabezian dauden pertsonen %64 emakumeak dira eta, gainera, %49,6k urtebete baino gehiago darama lana aktiboki bilatzen, iraupen luzeko langabeziak, langabe diren gizonezkoen %32,9 eragiten duen bitartean. Hauex da beste datu bat gehiago, jasatzen duten bereizkeria dela eta, emakumezkoek enplegu bat lortzeko gizonezkoek baino oztopo gehiago daukatela frogatzeko.

### **Iparraldean ere, geldialdi ekonomikoa agertu da**

Baionako Merkataritza Ganbarak argitaratuta dagoen "Conjoncture économique Pays Basque" aldizkariaren arabera, 2002ko lehendabiziko hiruhilekoan, 4.350 enplegu eskari jaso ziren ANPE<sup>2</sup> agenzian; hots, aurreko urteko epealdi berberean baino %16,30 gehiago. Hazkunde honen arrazoiaren artean hauexek azpimarratu behar di-





ra: ordezeko lan kontratuen amaiera eta ekonomia arrazoiak eragindako kaleratze hazkundera.

Altak eta bajak behin kontuan hartuta, ondorioztatzen den saldoak zera diosku: langabezia aurten orain arte, %2 hazi zela. Honela, Iparraldean (Zuberoan izan ezik) langabezi-tasa %8,9 izan da, lehendabiziko hiruhileko amaieran.

Martxoaren amaieran ere, mugagabeak eta aldi osorako enplegua bilatzen zuten 9.046 langabetu kontabilizatu ziren; hots aurreko urteko antzeko kopurua. Hala eta guztiz, geldialdi hau eta azken bost urteotako beheranzko joera nabarmendu behar dira.

<sup>2</sup> Frantziar Estatuko lanpostuak bilatzeko agentzia publikoa.

## 2002ko egoera ekonomikoaren azterketa - 1. seihilekoa



# 4. Kontratazioa

## 2002ko lehendabiziko seihilekoan



2002ko lehendabiziko seihilekoan, Hego Euskal Herriko INEMeko bulegoetan 424.903 lan kontratu erregistratu ziren, aurreko urteko seihilekoan sinatu ziren bezainbeste. Nahiz eta diferentziak oso esanguratsuak ez izan, kontratazioaren modalitateak izan duen bilakaera kontrakoa izan da. Izan ere, lehendabiziko seihileko honetan, 986 aldi baterako lan kontratu gehiago sinatu ziren eta 520 mugagabe gutxiago. Beraz, mugagabeko kontratazioa %1,3 jaitsi da.


Sinatu ziren 39.903 lan kontratu mugagabeek, kontratazio osoaren %9,20 suposatuz eta aldi baterakoek, noski %90,80. Hala eta guztiz, sexu eta adinaren arabera bereizkeriek dira. Gizonen artean, mugagabeko kontratazioa %10,30 izan zen eta emakumez-

koen artekoa, %8. 25 urte baino gutxiagoko gizonen gazteek sinaturiko lan kontratuei dagokienez, %6 mugagabeak izan ziren, eta andrazko gazteena %5,30 soilik.

Mugagabeko kontratazioaren barruan, sustapen neuriei lotuta ez dauden mugagabe arruntek (aldi osorakoak, aldi partzialekoak edo aldizkako kontratu finkoak) %27,50 suposatzen dutela nabarmendu behar da. Gai nontzeko mugagabeek, Gizarte Segurantzako enpresari kuotetan hobari esanguratsuak edukitzeaz gain, lanberme txarragoak eskaintzen dituzte, kaleratze kasurako indemnitazio txikiagoa delako.

1997an CCOO eta UGT sindikatuek, 1997ko lan erreforma sinatu zutenean,

## 2002ko egoera ekonomikoaren azterketa - 1. seihilekoa



LABek, sustapeneko mugagabearen sorketak eskubide osoko mugagabeen ordezte progresiboa eragingo zuela salatu zuen, beren ordeze, eskubide gu-txiagoko eta justifikaziorik gabeko kaleratze merkeagoko lan kontratuak sortuz. Bost urte geroago, enplegu fin-koen %43k (enplegu publikoa kontuan hartu barik), 33 eguneko indemnizazioa eta 24 hilabeteko gehienezko tope bat dauzkate, mugagabe arruntak, 45 eguneko eta 42 hilabeteko hurrenez hurren kontuan hartzen dituen bitartean.

Mugagabe arruntan sorturiko eze-gonkortasun faktorea hain handia da ezen Gizarte Segurantzak emandako hobariak amaitzen direnean, enplegu egonkorra sustatzeko kontratuen %20 bukatuta baitira.

Azkenik, mugagabeko kontratuen %48,20, aldi baterako kontratuetatik datoz. Iazko aldi berean %31,70 izan zen bitartean.

Aldi baterako kontratazioari dagokionez, ekoizpen arrazoiengatik aldi baterakoek eta obra edo zerbitzuek gehien erabiltzen direnak izaten dira. Kontratu mota hauek (aldi partziala eta osokoa) kontratazio osoaren %38,70 eta %36,10 suposatzen du, hurrenez hurren.

Formakuntza kontratuari dagokionez, herriko hizkeran deituriko "zarama kontratua", kontratazio osoaren %0,40 baino ez da. Hasiara batean, 16-21 urte tarteko pertsonen zuzenduta zegoen, baina iazko lan erreformaren ondoren, bere erabilera langabezian dauden beste talde batzuetara zabaldu zen, adina kontuan hartu barik: ezinduak, etorkinak, giza bazterketa pairatzen duten frogatuta daukatenak edo hiru urte baino gehiago lan barik egon direnak eta tailer eskolako, lanbide etxeko eta enplegu tailerreko egitasmotara sartzen direnak.

Hala eta guztiz, bere erabilera ez da handitu portzentajeetan. Hori dela eta, bere erabilera zabaltzeko saiakerak porrot egin duela esan daiteke.


Zarama kontratu hauen soldata-erreferentzia, hitzarmen kolektiboak besterik adierazi ezean, SMI (Lanbide Ar-teko Gutxiengo Soldata) izango da, formakuntzari emandako denboraren zati proportzionala kendu ondoren

(gutxienez %15), eta gainera, langabezia laguntzarako ez da kontuan hartzen. Neurritz gaineko lan baldintza hauek nahiko dira lan kontratu mota honen desagerpena eskatzeko, baina gainera, bere erabilera urriak, enplegu bat lortzeko zailtasun handienak dauzkaten taldeak laneratzeko, gizarteratzeko balio ez duela frogatzen du.

Bestalde, etengabeko lanpostuak betetzeko iraupen laburreko kontratuak kateatzen dira; honek lan merkatuko errotazio handia argitzen du, Lan Merkatuan dagoen hain handia den errotatzea argitzen du. Zehatzago esanda, lehendabiziko seihileko honetan aldi baterako lan kontratua eduki duten langileek, 1,5 kontratu sinatu dituzte, gutxi gorabehera. Proportzio hau mantentzekotan, aldi baterako kontratu batez lan egiten dutenek, urtean zehar, batez beste, hiru kontratu sinatuko lituzke.

Iraupen mugatuko lan kontratuen osorearen %74k ez dute hiru hilabete baino gehiago irauten eta %99k urtebete irauten dute gehienez.

Datu baikor bat baino ez daukagu: Lan Merkatuan ABLE (Aldi Baterako Lan Enpresak-“ETT”) enpresen daukaten bitartekotze-gaitasuna gutxitu da. Urteko lehendabiziko hiruhilekoan, ABLEen bidez sinaturiko lan kontratuak 34.302 izan ziren, aurreko urtean baino %12 gutxiago. Kontratu hauek, erregistraturiko lan kontratuen %18,30 dira, iaz, %20,50 izanda.



**2002ko egoera ekonomikoaren azterketa - 1. seihilekoa**

# 5. Eranskinak

## HEGO EUSKAL HERRIKO LAN MERKATUA

(EPA: 2002ko 2. hiruhilekoa)

<b>SEXU BLOK</b>	<b>2. hiruh. 02</b>	4. hiruh. 01	DESB.	<b>SOLDATAPEKOAK</b>
LANDUNAK	1.117.500	1.117.600	-100	Guztira 891.000
LANGABETUAK	102.400	104.000	-1.600	Mugagabe. 632.200
AKTIBOAK	1.219.900	1.221.600	-1.700	Aldibatera. 258.800
LANGABEZI TASA	8,4	8,5	-0,1	
ENPLEGU TASA	49,8	49,9	-0,1	<b>LANGABEZIAN</b>
JARDUERA TASA	54,4	54,5	-0,1	Urtebete + 44.600
ALDIKOTASUN TASA	29,0	29,5	-0,4	2 urte + 29.600
16 urtetik gorako biztanleria	2.243.000	2.240.800	2.200	
<b>EMAKUMEAK</b>	<b>2. hiruh. 02</b>	4. hiruh. 01	DESB.	<b>SOLDATAPEKOAK</b>
LANDUNAK	431.600	428.700	2.900	Guztira 359.600
LANGABETUAK	65.100	66.000	-900	Mugagabe. 228.800
AKTIBOAK	496.700	494.700	2.000	Aldibatera. 130.800
LANGABEZI TASA	13,1	13,3	-0,2	
ENPLEGU TASA	37,5	37,3	0,2	<b>LANGABEZIAN</b>
JARDUERA TASA	43,2	43,0	0,1	Urtebete + 32.300
ALDIKOTASUN TASA	36,4	37,4	-1,0	2 urte + 22.000
16 urtetik gorako emakumeak	1.150.900	1.149.400	1.500	
<b>GIZONAK</b>	<b>2. hiruh. 02</b>	4. hiruh. 01	DESB.	<b>SOLDATAPEKOAK</b>
LANDUNAK	685.800	688.900	-3.100	Guztira 531.300
LANGABETUAK	37.400	38.100	-700	Mugagabe. 403.400
AKTIBOAK	723.200	727.000	-3.800	Aldibatera. 127.900
LANGABEZI TASA	5,2	5,2	-0,1	
ENPLEGU TASA	62,8	63,2	-0,4	<b>LANGABEZIAN</b>
JARDUERA TASA	66,2	66,7	-0,4	Urtebete + 12.300
ALDIKOTASUN TASA	24,1	24,1	-0,1	2 urte + 7.500
16 urtetik gorako gizonak	1.092.000	1.090.500	1.500	
<b>GAZTEAK (&lt; 25 urte)</b>	<b>2. hiruh. 02</b>	4. hiruh. 01	DESB.	<b>SOLDATAPEKOAK</b>
LANDUNAK	92.700	101.400	-8.700	Guztira 84.600
LANGABETUAK	23.700	25.300	-1.600	Mugagabe. 27.600
AKTIBOAK	116.400	126.700	-10.300	Aldibatera. 57.000
LANGABEZI TASA	20,4	20,0	0,4	
ENPLEGU TASA	31,9	34,1	-2,2	<b>LANGABEZIAN</b>
JARDUERA TASA	40,1	42,7	-2,6	Urtebete + 6.000
ALDIKOTASUN TASA	67,4	72,5	-5,1	2 urte + 3.600
16 urtetik 25era	290.300	297.000	-6.700	

## 2002ko egoera ekonomikoaren azterketa - 1. seihilekoa

### INEMen ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK HEGO EUSKAL HERRIA. 2002ko LEHENDABIZIKO SEIHILEKOAN

KONTRATU MOTA	GUZTIRA	LEHEN SEKT.	INDUST.	ERAIKUN.	ZERBITZ.	GIZONAK	EMAKUMEAK	GAZTEAK
MUGAGABE ARRUNTA (1)	10.693	761	2.457	790	6.685	7.840	2.853	1.641
MINUSBALIATUAK	231	5	46	22	158	167	64	15
SUSTAPENEGOAK	9.235	101	2.016	567	6.551	3.351	5.884	1.489
MUGAGABE BIHURTZEAK	18.744	136	5.746	1.564	11.298	11.404	7.340	4.813
<b>MUGAGABE GUZTIAK</b>	<b>38.903</b>	<b>1.003</b>	<b>10.265</b>	<b>2.943</b>	<b>24.692</b>	<b>22.762</b>	<b>16.141</b>	<b>7.958</b>
OBRA EDO ZERBITZUA	153.000	2.522	20.465	35.694	94.319	95.024	57.976	46.316
EKOIZPENETAKOAK	164.058	1.172	27.864	6.329	128.693	82.181	81.877	60.384
BITARTEKOAK	56.121	296	3.280	304	52.241	13.826	42.295	13.406
MINUSBALIATUAK	504	2	156	30	316	361	143	81
LANEAN TXERTATZEKOAK	371	0	0	24	347	238	133	57
ORDEZKAPENA (64 URTE)	115	0	33	7	75	72	43	20
ERRELEBU-KONTRATUAK	989	0	694	32	263	784	205	256
ORDEZKAPEN PARTZIALA	1.087	0	781	36	270	983	104	0
PRAKTIKAK	4.289	12	1.328	381	2.568	2.529	1.760	2.734
PRESTAKUNTZAKOAK	1.827	4	326	382	1.115	1.163	664	1.619
GAINONTZEKOAK	3.084	204	390	249	2.241	1.559	1.525	745
<b>ALDI BATERAKO GUZTIAK</b>	<b>385.445</b>	<b>4.212</b>	<b>55.317</b>	<b>43.468</b>	<b>282.448</b>	<b>198.720</b>	<b>186.725</b>	<b>125.618</b>
<b>KONTRATU GUZTIAK</b>	<b>424.348</b>	<b>5.215</b>	<b>65.582</b>	<b>46.411</b>	<b>307.140</b>	<b>221.482</b>	<b>202.866</b>	<b>133.576</b>

Iturria: INEM.

(1) Sustapen neurriei lotuta ez dauden aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkako kontratu finakoak barne.

(\*) Aldi baterako mota bakoitzak, berari dagozkion aldi partzialeko kontratuak kontutan hartzen ditu.

**INEMen ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK (ehuneko bertikalak).  
HEGO EUSKAL HERRIA, 2002ko LEHENDABIZIKO SEIHILEKOAN**

KONTRATU MOTA	GUZTIRA	LEHEN SEKT.	INDUST.	ERAIKUN.	ZERBITZ.	GIZONAK	EMAKUMEAK	GAZTEAK
MUGAGABE ARRUNTA (1)	2,5%	14,6%	3,7%	1,7%	2,2%	3,5%	1,4%	1,2%
MINUSBALIATUAK	0,1%	0,1%	0,1%	0,0%	0,1%	0,1%	0,0%	0,0%
SUSTAPENEOAK	2,2%	1,9%	3,1%	1,2%	2,1%	1,5%	2,9%	1,1%
MUGAGABE BIHURTZEAK	4,4%	2,6%	8,8%	3,4%	3,7%	5,1%	3,6%	3,6%
<b>MUGAGABE GUZTIAK</b>	<b>9,2%</b>	<b>19,2%</b>	<b>15,7%</b>	<b>6,3%</b>	<b>8,0%</b>	<b>10,3%</b>	<b>8,0%</b>	<b>6,0%</b>
OBRA EDO ZERBITZUA	36,1%	48,4%	31,2%	76,9%	30,7%	42,9%	28,6%	34,7%
EKOIZPENETAKOAK	38,7%	22,5%	42,5%	13,6%	41,9%	37,1%	40,4%	45,2%
BITARTEKOAK	13,2%	5,7%	5,0%	0,7%	17,0%	6,2%	20,8%	10,0%
MINUSBALIATUAK	0,1%	0,0%	0,2%	0,1%	0,1%	0,2%	0,1%	0,1%
LANEAN TXERTATZEKOAK	0,1%	0,0%	0,0%	0,1%	0,1%	0,1%	0,1%	0,0%
ORDEZKAPENA (64 URTE)	0,0%	0,0%	0,1%	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%
ERRELEBU-KONTRATUAK	0,2%	0,0%	1,1%	0,1%	0,1%	0,4%	0,1%	0,2%
ORDEZKAPEN PARTZIALA	0,3%	0,0%	1,2%	0,1%	0,1%	0,4%	0,1%	0,0%
PRAKTIKAK	1,0%	0,2%	2,0%	0,8%	0,8%	1,1%	0,9%	2,0%
PRESTAKUNTZAKOAK	0,4%	0,1%	0,5%	0,8%	0,4%	0,5%	0,3%	1,2%
GAINONTZEKOAK	0,7%	3,9%	0,6%	0,5%	0,7%	0,7%	0,8%	0,6%
<b>ALDI BATERAKO GUZTIAK</b>	<b>90,8%</b>	<b>80,8%</b>	<b>84,3%</b>	<b>93,7%</b>	<b>92,0%</b>	<b>89,7%</b>	<b>92,0%</b>	<b>94,0%</b>
<b>KONTRATU GUZTIAK</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>

*Iturria: INEM.*

(1) Sustapen neurriei lotuta ez dauden aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkako kontratu finakoak barne.

(\*) Aldi baterako mota bakoitzak, berari dagozkion aldi partzialeko kontratuak kontutan hartzen ditu.

## 2002ko egoera ekonomikoaren azterketa - 1. seihilekoa

### INEMen ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK (ehuneko horizontalak). HEGO EUSKAL HERRIA, 2002ko LEHENDABIZIKO SEIHILEKOAN

KONTRATU MOTA	GUZTIRA	LEHEN SEKT.	INDUST.	ERAIKUN.	ZERBITZ.	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
MUGAGABE ARRUNTA (1)	100%	7,1%	23,0%	7,4%	62,5%	73,3%	26,7%	15,3%
MINUSBALIATUAK	100%	2,2%	19,9%	9,5%	68,4%	72,3%	27,7%	6,5%
SUSTAPENETAKOAK	100%	1,1%	21,8%	6,1%	70,9%	36,3%	63,7%	16,1%
MUGAGABE BIHURTZEAK	100%	0,7%	30,7%	8,3%	60,3%	60,8%	39,2%	25,7%
<b>MUGAGABE GUZTIAK</b>	<b>100%</b>	<b>2,6%</b>	<b>26,4%</b>	<b>7,6%</b>	<b>63,5%</b>	<b>58,5%</b>	<b>41,5%</b>	<b>20,5%</b>
OBRA EDO ZERBITZUA	100%	1,6%	13,4%	23,3%	61,6%	62,1%	37,9%	30,3%
EKOIZPENETAKOAK	100%	0,7%	17,0%	3,9%	78,4%	50,1%	49,9%	36,8%
BITARTEKOAK	100%	0,5%	5,8%	0,5%	93,1%	24,6%	75,4%	23,9%
MINUSBALIATUAK	100%	0,4%	31,0%	6,0%	62,7%	71,6%	28,4%	16,1%
LANEAN TXERTATZEKOAK	100%	0,0%	0,0%	6,5%	93,5%	64,2%	35,8%	15,4%
ORDEZKAPENA (64 URTE)	100%	0,0%	28,7%	6,1%	65,2%	62,6%	37,4%	17,4%
ERRELEBU-KONTRATUAK	100%	0,0%	70,2%	3,2%	26,6%	79,3%	20,7%	25,9%
ORDEZKAPEN PARTZIALA	100%	0,0%	71,8%	3,3%	24,8%	90,4%	9,6%	0,0%
PRAKTIKAK	100%	0,3%	31,0%	8,9%	59,9%	59,0%	41,0%	63,7%
PRESTAKUNTZAKOAK	100%	0,2%	17,8%	20,9%	61,0%	63,7%	36,3%	88,6%
GAINONTZEKOAK	100%	6,6%	12,6%	8,1%	72,7%	50,6%	49,4%	24,2%
<b>ALDI BATERAKO GUZTIAK</b>	<b>100%</b>	<b>1,1%</b>	<b>14,4%</b>	<b>11,3%</b>	<b>73,3%</b>	<b>51,6%</b>	<b>48,4%</b>	<b>32,6%</b>
<b>KONTRATU GUZTIAK</b>	<b>100%</b>	<b>1,2%</b>	<b>15,5%</b>	<b>10,9%</b>	<b>72,4%</b>	<b>52,2%</b>	<b>47,8%</b>	<b>31,5%</b>

Iturria: INEM.

(1) Sustapen neurriei lotuta ez dauden aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkako kontratu finkoak bane.

(\*) Aldi baterako mota bakoitzak, berari dagozkion aldi partzialeko kontratuak kontutan hartzen ditu.